



Sareko Liburutegiak GJHekin

03/16ko jardunaldia Euskadiko Artxibo Historikoan (Bilbo)

10:00-10:15: Mikel Aizpururen aurkezpena (Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen zuzendaria)

10:15-10:45: liburutegiak GJHren erronkari aurre egiteko Alicia Sellés (FESABIDeko lehendakaria)

10:45-11:00: sareko liburutegiak GJHrekin, Fernando Juarezzen eskutik (ALDEEko lehendakaria)

11:15-13:00: Ekintza-proposamen zehatzak definitzeko talde-dinamika

[#LiburuteGJH](#) [#BibliODS en Twitter](#)
[Crónica de Kulturklik](#) | [euskeraz](#)



Dokumentuaren aurkibidea

Euskadiko 2030 estrategia liburutegietan lurreratzen	1
4. GJH Liburutegi inklusiboa	3
17. GJH> Aliantzak garatzea	3
5. GJH> Genero-ikuspegia duen liburutegia	4
10. GJH. Zerbitzu publiko telemaikoetarako sarbidean herritarrei laguntzea	5
16. GJH > Bakearen eta bizikidetzaren kultura	6
SARE gisa lan egin beharreko GJH HELBURUAK	5



Sareko Liburutegiak GJHekin

Euskadiko 2030 Estrategia Liburutegien Sarean lurreratzen


[Euskadiko 2030 Estrategiatik](#), aldez aurretik, euskal liburutegiak lerrokatzeko xedekak identifikatu ziren (ikus 5. or. [Sare gisa lan egin beharreko GJHren jomuga posibleak](#)). Martxoaren 16ko jardunaldian, gehienez ere 5 helburu aukeratzeko eskatu zitzaizen parte-hartzaileei, taldeka landu beharreko gaiak lehenesteko.

Markatu zure ustez sare gisa lan egiteko interesgarrienak diren bost xedekak

Marca las 5 metas que crees que son más interesantes para trabajar como RED



49 respuestas




49 erantzun jaso dira formularioan. 60 pertsona bertaratu dira (% 81,6ko erantzuna)

Bost taldeetako bakoitzean helburu bat landu zen, lehenik eta behin Liburutegi Sare bezala pentsatutako proposamenak sortuz (maila makroan), liburutegi bakoitzeko lanaren logika mikroa gaintuz. Ahal zen neurrian, proposamenak aurrera eramateko beharrezko baliabideak zehaztu ziren, zein eragilerekin lan egin beharko zen, zein epetan gauzatu ahal izango zen, etab. Azkenik, talde bakoitzeko proposamen interesgarrienak lehenetsi ziren, dokumentu honetan jasotzen direnak.



Sareko Liburutegiak GJHekin



G1

G5

4. GJH > Liburutegi inklusiboa

Pertsona guztientzako informazioa eskuratzea eta eskuragarri izatea, batez ere zailtasun gehien dituztenentzat.

- *Liburutegiko langileen prestakuntza **dibertsitate funtzionala duten kolektiboei arreta emateko** (itsumena, gorrieria)*
- ***Irakurketa inklusiboko kluba**: dibertsitate funtzionala duten eta irakurtzeko hainbat trebetasun dituzten kolektiboek elkarrekin parte hartzen dute klub berean. Haien iruzkinak posta elektronikoz bidaltzeko aukera dute, libreago eta behar duten denboran adierazi ahal izateko*
- ***Katalogazioa berrikustea** letren tipologia jartzeko (tamaina eta letra-mota zehatzaren arabera)*
- ***Liburutegitik ongietorria egin** herrira bizitzera iristen diren pertsoneri*

17. GJH> Aliantzak garatzea

Liburutegiak eguneroko bizitzan egon daitezten eta agenda politikoan eragina izan dezaten

- Sareko liburutegi guztietan herritarren parte-hartze prozesua (laborategia), liburutegiak nola ikusten diren (eta liburutegietatik zer espero den) jakiteko.
 - Gizartearekin, politikariek eta liburuzainekin.
 - Tailer bera liburutegi guztietan: diagnostiko gisa balio dezala
 - Liburutegien kolektiboan eta gizartean ere eragina izango du.
 - 2022-2023an egin liteke.
 - Aurrekontua eta laguntza teknikoa behar dira.





Sareko Liburutegiak GJHekin

- Eusko Jaurlaritzan **2030 Agendan** lanean ari den pertsonarekin **harremanetan jartzea**, solaskidetza eta elkarlana eskaintzeko
 - Mikel, Francisca eta Fernando pertsona horrekin bildu ziren
 - ALDEE ekintza honekin lotzea
 - Ez da aurrekonturik behar.
- **Eragileak zehaztea**: mankomunitateka, koadrilaka, GJHren perspektiba duten eragileekin lan egitea: eskualdean nortzuk ari dira lanean GJH bakoitzean?
 - Liburuzainak izango dira, politikarien laguntzarekin, ekimenaren motorrak
 - Aurrekontua eta laguntza tekniko eragileen identifikazioa lortzeko
 - Eragileen identifikazioa sinergiak sortzeko, aliantzak ehuntzeko eta elkarrekin lan egiteko
- **Lan-talde bat sortzea** sarearen ideia gainditzeko eta liburutegi-sistemaren ideia zentzu guztietan sartzeko (unibertsitatekoak, eskolakoak, espezializatuak).
 - [CCBko 2030 agenda-taldearen](#) antzeko lantaldea
 - Talde hau Euskadiren solaskidea izango da Ministerioaren Liburutegi-lankidetzarako Kontseiluko [2030erako Agenda Taldearekin](#).
 - Foro sektorial bat sortzea azterketa propioa egiteko, sare gisa proposatutako helburuak lortzeko
 - ALDEEk liburutegietako langileak lan-taldean parte hartzeko deia egin dezake
 - Balibideak: pertsonak babestea eta liberatzea lan talde honetan parte har dezaten
 - Egindako gainerako proposamenen motorra eta hartzailea izatea.

5. GJH> Genero-ikuspegia duen liburutegia

Sare gisa pentsatzea. Liburutegietan jarduerak egiten dira (txoko LGTBI, 8M, 28J...). Kostatu da lortzea tokiko proposamenak Sare osorako ezartzea.

- **Estatistika inklusiboagoak** gizartearen ikuspegi bitarrik gabe (Gizonak, Emakumeak, beste batzuk). Sare mailan estatistika bateratua lantzea, gizartean genero-errealitate berria jaso ahal izateko.
- Saretik **genero-ikuspegia** duen bildumaren azterketa bultzatzea (egileak, beste genero bat ...) Erosketa-politikaren bidez desorekak zuzentzeko. Bildumaren % 75 gizonak badira, presentzia orekatuagoa lortzea. Beste genero bateko egileak nabarmentzen dituzten jarduerak erraztea.





Sareko Liburutegiak GJHekin

- **Katalogoko kontzeptuak Sarean berrikustea**, genero-ikuspegiarekin eta hizkuntzaren erabilera inklusiboarekin. Sarean bertan egitea eta aldatzea. (Adibidez: “desbideratze psikologikoak: homosexualitatea”)
 - Espainiako Liburutegi Nazionalari LGBTIQ+ bilduma nola garatu duen kontsulta egin zaio eta ez du erantzun.

Saretik, **SHUren gabeziak agerian jartzea** (nazioartean, ezin dugu aldatu). Baina Saretik, gai jakin batzuk alda daitezkeela iradoki.

10. GJH. Zerbitzu publiko telematikoetarako sarbidean herritarrei laguntzea

Herritarrei laguntzea administrazio publikoen zerbitzu telematikoetarako sarbidean (eten digitala murriztea)

- Herritarrei prestakuntza ematea eAdministrazioan eta **zerbitzu telematikoetan**
 - Laguntzaileak kontratatzea
 - KzGunearekin harremanetan jartzea
 - Udalaren informatika-zerbitzuarekin harremanetan jartzea
 - Ordaindutako boluntariotza, Unibertsitatearekin lankidetzan kredituen truke, elkarteekin eta GKEekin hitzarmenak
 - Liburutegietako langileak prestatzea, lan hori koordinatu eta egin ahal izan dezaten.
 - Liburutegiko espazioa egokitzea zerbitzu hori eman ahal izateko
 - Durangon jada horretan ari dira, Udaleko sailekin elkarlanean (Immigrazioa, Gizarte Zerbitzuak...)
- Liburutegien erabiltzaileei prestakuntza ematea udalerriko **liburutegi-baliabide eta -zerbitzu digitaletan eta kultura-zerbitzuetan**
 - Liburutegietako langileak: prestatzaileak
 - Ordenagailuan zein mugikorrean: nola sartu katalogoan, erreserbak, mailegu-eskaerak, berritzeak, bilaketak (liburubila), gogokoen zerrendak (herritarrentzat ezezagunak direnak)
 - eLiburutegia: mailegu digitalaren erabilera martxan jartzen laguntzea
 - [Nola erabiltzen da eLiburutegia](#) - Getxo Liburutegiak
- Herritarrei eAdministrazioan eta zerbitzu telematikoetan laguntzea
 - Herritarrei arreta emateko ordutegitik kanpo
 - Jendea arratsaldean joan dadila irekitzen dituzten liburutegietara.
 - Izapideak egiten laguntzea
 - Errefortzuko langileekin arratsaldeetan





Sareko Liburutegiak GJHekin

16. GJH > Bakearen eta bizikidetzaren kultura

Giza eskubideen eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea

«Hitz egin dezagun bakeaz».

Sareko liburutegietan txandakatzen joan daitekeen erakusketa sortzea.

- **Haurrak**
 - Bakeari eta bake-kulturari buruzko album esanguratsu bat aukeratzea
 - Pertsona espezializatuak irakasleei prestakuntza ematea
 - Eskolak liburutegiko erakusketa ikustera joatea
- **Giza liburutegiak**
 - Komunitate helduekin lan egitea, zurrumurruean aurkako estrategien alde lan egiteko, fakesnewak, pertsona desberdinak ezagutzea
 - Behar dira: aretoak, kolektibo eta elkarteekin harremanetan jartzea.
 - Liburutegiak topaleku: topaketa horiek ez daitezela hor amaitu, gero topaketa berriak sortzea.
- **Gazteak:**
 - Gazteak dinamizatzeko tresna
 - Jardunbide egokia Durangon: gerra zibileko bonbardaketaz, Giza Eskubideen gaia zabaltzen da. Hainbat hezkuntza-etapatan landu dute.
 - Booktrailerren lehiaketa, solasaldi literarioak,
 - Irratiko gunea ilustratzaileekin, profesionalekin eta hezitzaileekin egindako topaketekin...

“Hitz egin dezagun bakeaz Euskal Herrian”

Euskal Herriko bake-prozesuak interpelatu egiten gaitu, gizarte honen parte gisa.

- Euskal Herriko adiskidetze eta bake sozialaren prozesuan laguntzea liburutegietatik, gure auzo, herri eta hirietatik
- Gizarte-adiskidetzearekin eta desberdinen arteko topaketarekin zerikusia duten hitzaldi, topaketa, eztabaida, liburu-aurkezpen eta abarrei euskarria ematea.
- Zauriak sendatzen eta konpontzen laguntzea
- Elkarteekin, alderdiekin, sindikatuarekin, GKEekin, Unibertsitatearekin hitz egitea
- Langileak izatea jarduera horiek antolatzen
- Eta aurrekontu pixka bat jarduerak programatzeko



Sareko Liburutegiak GJHeKin

Sare gisalan egin beharreko GJH HELMUGAK

Euskadiko 2030 Agenda berrikusi ondoren, zenbait helburu/helmuga/ekintza bildu ziren, liburutegiak Euskadiko GJHeKin lerrokatzeko inspirazio-iturri izan zitezkeenak. [Agenda 2030 de Euskadi](#) rdunaldian, liburutegien **SAREKO HELMUGEKIN** geratu ginen (helmugak inspirazio iturri izan daitezke, bildu nahi ditugun proposamen eta ekintza motak jakiteko)

1. HELBURUA. Pobrezia murriztea

- **4. Helmuga** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sendotzea eta indartzea
 - **4.5. Ekintza.** Dauden premiei eta gizarte-baliabideei buruzko informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa biltzea, herritarren esku jartzeko

4. HELBURUA. Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzea, eta pertsona guztientzat etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatzea

- **9. Helmuga.** Kalitatezko hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta berritzailea sustatzea, hezkuntzarako sarbide-berdintasuna bermatuko duena.
 - **9.3. Ekintza.** Pertsona guztien interes kolektibo, sozial, ekonomiko eta prestakuntzako alde lan egiten duten ekimenak eta proiektuak, elkartasun-, askatasun-, ekitate- eta duintasun-printzipioen barruan, kultura desberdinekiko errespetuan, iraunkortasunean eta justizia sozialean oinarrituta.
- **4.1. SARE HELMUGA.** *Liburutegi inklusiboa: pertsona guztiek, batez ere zailtasun gehien dutenek, informazioa eskuratzea eta eskuragarri izatea*
 - **Ekintzak:** *Irisgarritasuna, irakurketa errazeko liburuak eta irakurketa irisgarria, braillezko liburuak, audioliburuak, teklatu egokituak, mahai doigarria, gupil-aulkietarako apalak, seinale egokiak, etab.*

5. HELBURUA. Genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea

- **13. Helmuga. Emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria desagerraraztea.**
 - **13.4. Ekintza.** Etxeko indarkeriaren edo sexuagatiko indarkeriaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatua – BLZ.
- **5.1. SARE HELMUGA.** *Genero-ikuspegia duen liburutegia*
 - *¿? Ekintza. Berdintasun-irizpideak txertatzea egiten den guztian: liburuak erostea, estatistikak, ahalduntzera bideratutako jarduerak, liburutegia espazio seguru gisa, etab.*

7. HELBURUA. Pertsona guztiek energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa eskura izango dutela bermatzea

- **16. Helmuga** Energia-politika lehiakorra eta iraunkorra sustatzea
 - **16.3. Ekintza.** Pobrezia energetikoaren arazoari buruzko informazio garrantzitsua, sistematizatua eta eguneratua lortzea.



Sareko Liburutegiak GJHeKin

10. HELBURUA. Desberdintasunak murriztea

- **25. Helmuga.** Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea.
 - **25.1. Ekintza.** Bakardade-arazoak dituzten adinekoei informazioa, detekzioa eta laguntza emateko kanpainak.
 - **25.7. Ekintza.** Adinekoentzako zerbitzuak eta programak garatzea haien parte-hartzea sustatzen duten zentro soziokulturaletan, hala nola Gasteizko Adinekoentzako Zentro Soziokulturalen Sarean.

- **29. Helmuga.** Aniztasunaren eta elkartasunaren kudeaketa positiboa bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen ari diren erronken aurrean (immigrazioa, errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...)
 - **29.1. Ekintza.** Erakundeen arteko koordinazioa, balioetan, gizalegean, bizikidetzan eta hizkuntza-, erlijio- eta kultura-trukean hezten duten baliabideak eta programak eskaintzeko.
 - **29.2. Ekintza.** Aniztasuna aitortzeko kanpainak eta estrategiak, eta hainbat kontakizunen interakziorako, komunikaziorako eta ezagutzarako espazioak eta baliabideak sustatzea. Zurrumurruen aurkako estrategia: Zas! Zurrumurruen Aurkako Euskal Sarea. Xenofobia eta diskriminazioa prebenitzeko, immigranteei, errefuxiatuei eta beste kultura batzuetakoei buruzko sentsibilizazioa eta zurrumurruen aurkako esku-hartzea.

- **10.1. SARE HELMUGA.** *Euskadin nahi den liburutegi-ereduaren plangintza estrategikoa.*
 - **Ekintza:** *Liburutegi Sarea noraino iristen den aztertzea (zerbitzu fisikoen erabilera, zerbitzu digitalen erabilera, erabiltzaileak nortzuk diren)*
 - **Ekintzak:** *Erabiltzaile gehiagorengana iristeko proposamenak: zerbitzu fisiko eta telematikoen erabilera zabaltzea, liburutegia pertsonak dauden tokira eramatea.*

- **10.2. SARE HELMUGA.** Informazio-alfabetatzea (baita informazio faltsuak identifikatzeko eta zabal ez daitezen lortzeko ere).
- **10.3. SARE HELMUGA.** *Irakurketa sustatzea*
- **10.4. SARE HELMUGA.** *Herritarrei laguntzea administrazio publikoen zerbitzu telematikoetarako sarbidean (eten digitala murriztea)*

12. Helburua. Kontsumo eta ekoizpen iraunkorreko modalitateak bermatzea

- **38. Helmuga.** Informazioa eta prestakuntza arin eta eraginkorra eskaintzea, kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen
 - **38.1. Ekintza.** Hainbat sektoretan kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa emateko kanpaina espezifikoak abian jartzea (etxez etxeko salmentak, online salmentak...) eta Informazio-formatuak kontsumo arduratsua sustatzeko egokitzea.



Sareko Liburutegiak GJHekin

- **39. Helmuga.** Euskal turismo-jardueran bikaintasuna eta iraunkortasuna sustatzea.
 - **39.4. Ekintza.** Sektore turistikoa azterna ekologikoaren murrizketari buruz informatzea eta sentsibilizatzea (Sentsibilizazio-jardunaldiak, Europako Etiketa Ekologikoa ezartzeko IHOBerekin hitzarmena, energia-eraginkortasuna hobetzeko EEErekin hitzarmena)

15. Helburua. Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak modu iraunkorrean kudeatzea, basamortutzearen aurkako borroak, lurren degradazioa gelditzea eta inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lurreko ekosistemen eta biodibertsitatearen kudeaketa iraunkorra.

- **45. Helmuga.** Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea.
 - **45.3. Ekintza.** Hiri- eta lurralde-jasangarritasunaren arloko prestakuntza, informazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea gizarte- eta ekonomia-eragile guztientzat, Ingurumen Ikasketetarako Zentroen bidez (CEA, Cristina Enea).

16. Helburua. Garapen iraunkorrerako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, pertsona guztiei justiziarako sarbidea erraztea eta maila guztietan kontuak ematen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak eraikitzea.

- **46. Helmuga.** *Giza eskubideen eta aniztasunaren errespetuan oinarritutako bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea.*
 - **46.1. Ekintza.** Gizalegea, bizikidetzaren eta desberdintasunekiko errespetua sustatzea, balioetan hezteko programen bidez.

17. Helburua. Garapen Iraunkorrerako Mundu Aliantza ezartzeko eta biziberritzeko bitartekoak indartzea

- **50. Helmuga.** **Maila anitzeko gobernantza-aliantzen garapena bultzatzea, ekimen estrategikoak abian jartzeko.**
 - 50.1. Ekintza. Lurraldeko eragileen arteko aliantzak sortzea, 2030 Agendaren esparruan maila anitzeko gobernantzarako ekimen estrategikoak elkarrekin ezartzeko.
- **17.1 SARE HELMUGA** *Aliantzak garatzea, sareko liburutegiek agenda politikoan eragina izan dezaten*
- **17.2 SARE HELMUGA** *Aliantzak garatzea liburutegiak eguneroko bizitzan egon daitezkeen lortzeko*